



**Amiantoa izan ditzaketen eraikinetan, elementutan eta lursailetan egin beharreko lanen baimenak arautuko dituen ordenantza**

## **I. Titulua: Xedapen Orokorrak**

### **1. artikulua.- Xedea.**

1.- Ordenantza honen xedea da Hernaniko eraikinetan, hoditan, instalaziotan, elementutan eta lursailetan amiantoa izan ditzaketen eraikuntzazko elementuak guztiz edo partzialki eraisteko, botatzeko, ordezkatzeko edo kentzeko lanak arautzea. Lan horiek amiantoa duten materialak eta sortutako hondakinak behar bezala manipulatzeari eta kentzeari buruz indarrean dagoen legediak ezarritakoaren arabera egingo dira, haiek egiten dituzten langileen eta, oro har, herritar guztien osasuna babesteko eta ingurumena zaintzeko.

### **2. artikulua.- Aplikazio eremua.**

Ordenantza hau Hernaniko udalerrri osoan aplikatuko da, eta biztanle eta bisitari guztiek bete beharko dute.

### **3. artikulua.- Araudi aplikagarria.**

Ordenantza honetan arautu gabeko guztiari dagokionez, Errege Dekretu eta Lege hauetan xedatutakoa hartuko da kontuan:

1.- Martxoaren 31ko 396/2006 Errege Dekretua, amiantoaren eraginpean egoteko arriskua duten lanei aplikatu beharreko segurtasun eta osasun arloko gutxieneko xedapenak ezartzen dituena.

2.- Otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretua, eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duena.

3.- Apirilaren 21eko 10/98 Legea, Hondakinei buruzkoa.

4.- Euskal Herriko Ingurumena Babesteko Eusko Jaurlaritzak emandako otsailaren 27ko 3/98 Lege Orokorra.

5.-Azaroaren 10eko 1406/1989 Errege Dekretua, 2001eko abenduaren 7ko Aginduak aldatutakoa (2001eko abenduaren 14ko Estatuko Aldizkari Ofizialaren 299. zk.), amiantoaren debekua eta amiantoa duten materialak seinalezatzeko beharra ezartzen dituena, eta zenbait gai eta prestakin arriskutsu merkaturatzeko eta erabiltzeko mugak finkatzen dituena.

**II. Titulua: Jarduera-protokoloa.****4. artikulua.-**

Ez da obra baimenik emango, eraikina, instalazioa edo lursaila, amiantoa izan ditzaketen eraikinen, instalazioen edo lursailen udal inbentarioan EZ dagoela aurretik egiaztatu gabe. Egiaztapen hori Udalak egingo du.

**5. artikulua.- Udal inbentarioan ez dauden eraikinak, instalazioak edo lursailak.**

Obra baimenaren xede den elementua ez badago udal inbentarioan, indarrean dagoen hirigintzako araudiaren arabera emango da obra baimena.

- **Lanak egiten diren bitartean amiantoa dagoela susmatuz gero, Udalak amiantoa duten/ez duten materialei buruzko txostena eskatuko dio sustatzaileari (396/06 Errege dekretuaren 10.2. artikulua). Amiantoa dagoela egiaztatuz gero, udal inbentarioan sartu eta ordenantza hau aplikatuko zaio.**
- **Lanak egiten diren bitartean amiantoa atzemanaz gero, sustatzaileak obra eten eta horren berri emango die Udalari eta lan arloko Agintariari.** Horrelakoetan ere, udal inbentarioan sartu eta ordenantza hau aplikatuko zaio.

**6. artikulua.- Obraren xede den eraikina, instalazioa edo lursaila udal inbentarioan baldin badago, baina amiantoa duen elementua bere horretan utzi nahi baldin bada.**

1.- Obra baimena indarrean dagoen hirigintzako araudian xedatutakoaren arabera emango da.

2.- Udal ikuskatzaileek obra gainbegiratu dute, amiantoa duten elementuak ez direla manipulatzeko ari egiaztatzeke.

3.- Eraikina, instalazioa edo lursaila ez da udal inbentariotik kenduko.

**7. artikulua.- Eraikina, instalazioa edo lursaila udal inbentarioan baldin badago eta amiantoa duen elementua manipulatu nahi baldin bada.**

1.- Amiantoa kentzea beharrezkoa ez baldin bada:

- 1) Amiantoa manipulatu behar izanez gero, Ordenantza honen I. eranskinean adierazitako enpresetako batek egin beharko du hori (Amiantoaren Arriskupeko Enpresen Erregistroa).



- 2) Agiri hauek aurkeztu beharko dira Udalean:
  - a. Obra baimena eman aurretik, ordenantza honen II. eranskinarekin bat datorren lan arloko Plan bat (Martxoaren 31ko 396/2006 Errege Dekretuaren 11. artikulua, amiantoaren eraginpean egoteko arriskua duten lanei aplikatu beharreko segurtasun eta osasun arloko gutxieneko xedapenak ezartzen dituen) aurkeztu beharko da, Laneko Ordezkaritzak onartutakoa.
  - b. Lanak bukatu ondoren, eta bermea itzuli baino lehen, amiantoaren elementuaren manipulazioari buruzko ziurtagiri bat. Ziurtagiri horretan zehaztu beharko da aipatutako elementuarekin hartu den irtenbidea.
- 3) Eraikinak, instalazioak edo lursailak ez dira udal inbentariotik kenduko.

## 2.- Amiantoa kentzea beharrezkoa baldin bada:

- 1) Amiantoa manipulatutako behar izanez gero, Ordenantza honen I. eranskinean adierazitako enpresetako batek egin beharko du hori (Amiantoaren Arriskupeko Enpresen Erregistroa).
- 2) Obra baimena eman aurretik, ordenantza honen II. eranskinarekin bat datorren lan arloko Plan bat (Martxoaren 2006ko 396 Errege Dekretuaren 11. artikulua, amiantoaren eraginpean egoteko arriskua duten lanei aplikatu beharreko segurtasun eta osasun arloko gutxieneko xedapenak ezartzen dituen) aurkeztu beharko da, Laneko Ordezkaritzak onartutakoa.
- 3) Kendutako elementua baimendutako zabortege batera eraman beharko da.
- 4) Lanak bukatu ondoren, eta bermea itzuli baino lehen, amianto hondakinen kudeaketari buruzko ziurtagiri bat aurkeztu beharko da.

## III. Titulua: Arau-hausteak eta zigorrak:

### I. kapitulua:

#### XEDAPEN OROKORRAK

#### 8. artikulua.- Sarrera.

Ordenantza hau ez betetzeagatik arau-hausleari dagozkion erantzukizun zibil eta penalez gain, udal zehapen araubidea ezarriko da kasu horietan, betiere ondorengo artikuluetan sailkatutako arau-hausteen arabera.

**9. artikulua.-** Prozedura.

Testu honetan jasotako arauak ez betetzeagatik erantzukizunak dituzten pertsona fisiko edo juridikoei zehapenak ezarri ahal izango zaizkie. Horrelakoetan jarraituko den prozedura bat etorriko da ondorengo Lege eta Dekretuan xedatutakoarekin: Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zehatzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legea eta abuztuaren 4ko 1398/1993 Errege Dekretua. Arau-hausteei dagokienez, hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legea, Euskal Herriko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra eta bat datorren gainerako legedia aplikatuko da.

**10. artikulua.-** Zehatzeko eskumena.

Arlo horretan zigorrak ezartzeko eskumena Alkateak izango du, edo hura ordezkatzeko izendatutako zinegotziak.

**11. artikulua.-** Arau-hausteen arduradunak.

- 1- Ondorengo egoera batean dauden pertsona fisiko edo juridikoak izango dira aurreko xedapenen ondoren adierazitako arau-hausteen arduradunak:
  - Araudi hau urratzea dakarren jardueraren bat zuzenean egitea, norberaren izenean edo enpresen ordezkari edo arduradun gisa.
  - Araudi hori bete dadin aurrez neurriak hartzeko eta bete dadila eskatzeko duten legezko betebeharra ez betetzea, aipatutako lehen arduradunek egindako jardueretan.
  - Udal inbentarioan ez dauden eraikinetan, instalazioetan edo lursailetan lanak egiten diren bitartean amiantoa atzemanaz gero, Udalari edo lan arloko Agintariari ez jakinaraztea.
- 2- Lehen atalean ezarritakoa gorabehera, erantzukizuna solidarioa izango da ondorengo kasuetan:
  - Hondakinen jabeak edo sustatzaileak hondakin horiek kudeatzeko baimenik ez duen pertsona fisiko edo juridiko bati entregatzen dizkionean.
  - Arduradun bat baino gehiago dagoenean eta bakoitzaren partaidetza zenbaterainokoa izan den zehaztea ezinezkoa denean.

**12. artikulua.-** Hondakinen titular erantzulea.



Hondakinek beti izango dute titular erantzule bat; ekoizlea, jabea edo kudeatzailea izan daiteke, kasuen arabera. Erantzukizun administratibotik kanpo geratuko dira, bakar-bakarrik, baldintza legalak beteta, hondakinak kudeatzeko baimena duten kudeatzaileei eman dizkietenak. Hondakinak entregatu direla agiri baten bidez frogatu beharko da.

## **II. kapitulua:**

### **ARAU-HAUSTEAK**

#### **13. kapitulua.-** Lege-tipifikazioaren garapena

Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.n) artikulua eta Apirilaren 21eko 10/1998 Legearen 37.2. artikulua -34.3.b) artikuluekin loturik- alor honetan Toki Erakundeei esleitutako zehapen-eskumenaren eta arau-hausteen garapen gisa erregulatu da kapitulu hau.

#### **14. artikulua.-** Arau-hauste motak.

Arau-hausteak oso larriak, larriak eta arinak izan daitezke, ondorengo artikuluetan zehaztutako moduan.

#### **15. artikulua.-** Arau-hauste oso larriak

- 1- Lanak, proiektuak eta jarduerak hastea edo egitea, dagokien obra baimena eskatu gabe.
- 2- Obra baimena eskuratzeko beharrezkoak diren datuak isilean gordetzea edo faltsutzea.
- 3- Amiantoa duten hondakinak edozein modutan uztea, botatzea edo desagerraraztea.
- 4- Amiantodun hondakinak kudeatzeko baimenik ez duten pertsona fisiko edo juridikoei hondakin horiek ematea, saltzea edo lagatzea.

#### **16. artikulua.-** Arau-hauste larriak

- 1- Hirigintzako Departamentuak agintarien, ikuskatzaileen edo ordezkarien bidez Ordenantza honetan araututako arloetan egin beharreko ikuskatze lanak oztopatzea.
- 2- Hondakinak behar bezala ez ontziratzea eta etiketatzea.
- 3- Hondakinak kalean uztea, obrarako mugatu den eremutik kanpo.
- 4- Inbentarioan ez dauden eraikinetan edo instalaziotan amiantoa dagoela ez jakinaraztea.

**17. artikulua.-** Arau-hauste arinak

- 1- Ordenantza honetan finkatutako baldintzak eta betebeharrak ez betetzea, baldin eta arau-hauste larri edo oso larria ez bada.

**III. kapitulua:****ZEHAPENAK****18. artikulua.-** Zehapen motak.

Aurreko ataletan sailkatutako arau-hausteei ezar dakizkiekeen zehapenak ondorengoak izango dira, Hondakinei buruzko 10/98 Legearen 35. artikulua araberak:

- 1- Arau-hauste arinengatik:

- 6.010,12 € arteko isuna.

- 2- Arau-hauste larriengatik:

- 6.010,13 € eta 300.506,05 € bitarteko isunak.

- 3- Arau-hauste oso larriengatik:

- 300.506,06 € eta 1.202.024,21 € bitarteko isuna.

**20. artikulua.-** Zehapenak ezartzea.

Erantzulearen ezaugarriak, erruduntasun-maila, arau-haustea errepikatu den ala ez, partaidetza-maila eta lortutako onura kontuan izanik ezarriko dira zehapenak.

**21. artikulua.-** Jarduera osagarria.

Arau-hausleak behartuta daude utzitako hondakinak kentzera eta zikindu duten eremua garbitzera, dagozkien zehapenak kontuan izan gabe.

**22. artikulua.-**

Udaltzaingoa da Ordenantza hau behar bezala betetzen dela zaintzeaz arduratuko dena.

**23. artikulua.-**

Zehapen prozedura ofizioz hasiko da, edo alderdiak salaketa bidez hala eskatuta.

**24. artikulua.- Preskripzioa****1- Arau-haustak**

30/92 Legearen 132. artikulua ezarritakoaren arabera, arau-hauste oso larriek 3 urteren buruan preskribatuko dute, arau-hauste larriek 2 urteren buruan eta arau-hauste arinek 6 hilabeteren buruan.

**2- Zehapenak**

Arau-hauste oso larriengatik ezarritako zehapenek hiru urteren buruan preskribatuko dute, arau-hauste larriengatik ezarritakoek bi urteren buruan eta arau-hauste arinengatik ezarritakoek urtebeteren buruan. Zehapenen preskripzio epea zehapena ezartzeko ebazpena irmo bihurtu eta biharamunetik aurrera zenbatuko da.

**XEDAPEN GEHIGARRIA**

Ordenantza honetan aurreikusi ez diren alderdi guztietan Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legeak xedatutakoari men egingo zaio, baita aplikagarri izan daitezkeen gainerako araudiei ere.

**XEDAPEN INDARGABETZAILEA**

Ordenantza hau indarrean sartzen den egunetik aurrera, indargabetuta eta inolako baliorik eta ondoriorik gabe geratuko dira Ordenantzaren aurka dauden maila bereko edo txikiagoko xedapen, araudi eta ordenantza guztiak.

**AZKEN XEDAPENA**

Ordenantza hau indarrean sartuko da behin betiko onartu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean osorik argitaratu eta hamabost egunera.